



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2023.05.23

Ordua: 18:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Aurrekontu aldaketak onartzea.
3. Baztan, Bortziriak eta Malerrekaren artean elbarriendako eguneko zentroa kudeatzeko hitzarmenaren onespena.
4. Interes erregistroetarako aitorten ereduak onartzea.
5. Bortzirietan Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeko akordioa.
6. Alkate ebazpenak.
7. Galderak eta eskaerak.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA

2023/04/27ko osoko bilkura arrunteko eta 2023/05/02 ez-ohiko osoko bilkurako aktak AHO BATEZ ONETSI dira.

2. AURREKONTU ALDAKETAK ONARTZEA.

Idazkariak 2,3,4,5 eta 6/2023 aurrekontu aldaketak azaldu ditu. Horretarako, aurrekontu aldaketa egin ahal izateko, 2023ko maiatzaren 12ko kontuhartzailearen txostenean xedaturikoa azaldu du.

2/2023 ALDAKETA: KREDITU GEHIKUNTZAK (GASTU OROKORRERAKO DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 4121 2279902	SU EGUR LOTEA ATERATZEA	4.550,00 €
1 4540 2100003	EHIZA BIDEEN MOLDAKETA	3.100,00 €
1 4320 2269902	TURISMOAREN PROMOZIOA	900,00 €
1 9200 2260301	ALDIZKARI OFIZIALETAN ARGITARATZEA	1.500,00 €
1 9310 2270601	AHOLKULARITZA JURIDIKOA	2.640,40 €
	GUZTIRA	12.690,40 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8700001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA	12.690,40 €
	GUZTIRA	12.690,40 €

3/2023 ALDAKETA: KREDITU BEREZIA (GASTU OROKORRERAKO DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 1612 2100005	UR HORNIDURAREN MANTENIMENDUA	8.000,00 €
1 1601 2100006	SANEAMENDU MANTENIMENDUA	1.400,00 €
1 3410 4820004	EKAITZA ELKARTE DIRULAGUNTZA	1.000,00 €
1 9200 2200003	APLIKAZIO JURIDIKOAK	1.700,00 €
	GUZTIRA	12.100,00 €
FINANTZAZIOA		

Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8700000	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	12.100,00 €
GUZTIRA		12.100,00 €

4/2023 ALDAKETA: KREDITU BEREZIA AFEKTATUTAKO BALIABIDEEN GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 1350 6250004	HESI BERRIAK	710,00 €
1 1533 6250003	SARRERAKO PANELA	240,00 €
1 1533 6190002	KARRIKEN MOLDAKETAK	29.400,00 €
1 3232 6330001	ESKOLAKO SUKALDEA	10.000,00 €
1 3340 6250002	DANTZA MAKILAK	200,00 €
1 3420 6250001	FRONTOIKO PORTERIA BERRIAK	1.699,32 €
1 4121 6230002	ERLE ASIATIKOENTZAKO KAIOLAK	760,00 €
1 4140 6190003	BASERRIETAKO BIDEEN MOLDAKETAK	35.000,00 €
1 9200 6190004	HERRIKO ETXEAREN MARGOKETA	20.000,00 €
1 9200 6400003	SUTEEN PLANA	2.750,00 €
GUZTIRA		100.968,12 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8701000	AFEKTATUTAKO BALIABIDEN DIRUZAINZAKO GERAKINA	100.968,12 €
GUZTIRA		100.968,12 €

5/2023 ALDAKETA: DIRU-SARREREN KREDITUAK SORTZEA

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 4140 6190001	UHOLDEEN AZPIEGITURAKO MOLDAKETAK	47.054,20 €
GUZTIRA		47.054,20 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 7200001	ESTATUKO UHOLDE DIRULAGUNTZA	27.571,56 €
1 7508002	ABELTZAINZUA UHOLDE DIRULAGUNTZA	19.482,64 €
GUZTIRA		47.054,20 €

6/2023 ALDAKETA: DIRU-SARREREN KREDITUAK SORTZEA

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 1533 6190002	KARRIKEN MOLDAKETAK	9.258,09 €
GUZTIRA		9.258,09 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 7505001	TOKI PROGRAMAZIO DIRULAGUNTZA	9.258,09 €
GUZTIRA		9.258,09 €

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ, ERABAKI DU:

- 1.- 2,3,4,5 eta 6/2023 aurrekontu aldaketei onespena ematea.
- 2.- 2,3 eta 4/2023 aurrekontu aldaketen akordioa udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.

3. BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAREN ARTEAN ELBARRIENDAKO EGUNEKO ZENTROA KUDEATZEKO HITZARMENAREN ONESPENA.

Alkateak eta Leire Mitxelena zinegotziak Baztango, Urdazubiko, Zugarramurdiko, Malerrekako eta Bortzirietako Udalen arteko Oronozko "Zunda" ezgaitasuna duten pertsonendako eskualde mailako eguneko zentroa finantzatzeko lankidetza hitzarmena azaldu dute.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

- 1.- Oronozko "Zunda" ezgaitasuna duten pertsonendako eskualde mailako eguneko zentroa finantzatzeko lankidetza hitzarmenari onespena ematea.
- 2.- Arantzako Udaleko alkateari ahalmen nahikoa ematea aipaturiko hitzarmena sinatzeko eta dagozkion kudeaketan egiteko.
- 3.- Baztango Udalari akordio honen berri ematea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

4. INTERES ERREGISTROETARAKO AITORPEN EREDUAK ONARTZEA.

Idazkariak gogorarazi du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua dioela toki-korporazioetako kide guztiek adierazpen bat eginen dutela balizko bateraezintasun-arrazoiei buruz eta diru-sarrerak ematen dizkien edo eman diezazkiekeen edozein jarduerari buruz, bai eta beren ondare-ondasunen eta era guztietako sozietateetan duten partaidetzaren aitorpenari buruz ere. Adierazpen horretan, partaidetzako sozietateei eta errentaren gaineko zergen eta, hala badagokio, sozietateen gaineko zergen likidazioei buruzko informazioa emanen dute.

Bi adierazpen horiek dagozkien osoko bilkuretan onartutako eruedetan formalizatuko dira, eta, beraz, beharrezkoa da egungo udalak dagozkion aitorpen-ereduak onartzea.

Adierazpen horiek egin behar dira toki-korporazioetako kide hautetsiek kargua utzi eta agintaldia amaitu baino lehen, eta toki-korporazio bakoitzean eratutako interesen erregistro banatan inskribatuko dira. Erregistro horiek izaera publikoa izanen dute.

Ondasunen eta jardueren urteko aitorpenak urtero argitaratuko dira, eta, nolnahi ere, agintaldia amaitzen den unean.

Korporazioaren erregelamendu organikorik ez badago, komenigarria da interesen deklarazioak aurkezteko epeak erabakitzea, bai eta nola argitaratuko diren ere.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

1.- Bateraezintasun eta jarduera posibleen arrazoiei eta ondare-ondasunen aitorpenei eta sozietateetako partaidetzari buruzko aitorpenen ereduak onartzea.

2.- Aurkezteko epe hauek ezartzea:

- Kargua uzten duten zinegotzien adierazpenak agintaldia amaitzen denetik beren eginkizunak betetzeari utzi arte aurkeztu ahal izango dira.
- Sartzen diren zinegotzien adierazpenak, zinegotzi hautetsiak aldarrikatzen direnetik kargua hartu behar duten egunera arte.
Agintaldia berritzen duten zinegotzien adierazpenei dagokienez, adierazpen bakarra aurkeztuko dute, eta une bat edo bestea aukeratu ahal izango dute.

3.- Zehaztea bateraezintasun eta jarduera posibleen arrazoiei buruzko deklarazioak eta ondare-ondasunen deklarazioak udalaren webgunean eta gardentasun-atarian argitaratuko direla, eta horiek aurkezteari bakarrik eginen zaiola erreferentzia.

5. BORTZIRIETAN ZERBITZUEN MANKOMUNITATE BAKARRA ERATZEKO AKORDIOA.

Bortzirietako borts udalak jakitun dira Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeak izanen lituzkeen abantailez. Hala nola, etorkizunari begira, zerbitzua hobetuko luke, baliabideak hobekiago optimizatzeko aukera izan litzateke eta, ez hori bakarrik, proiektu berriak aitzinera ateratzea erraztuko luke (enpresa publikoak eratzea, arlo ezberdinetako teknikari berriak kontratatzea, etab.). Era berean, dirulaguntzak lortzeko aukera gehiago eman litzakeela uste dute, dauden zerbitzuen arteko lankidetzak hobetuko litzateke eta.

Dena dela, jakitun dira baita ere Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeak oraingo sisteman aldaketa nabarmenak eragin ditzakela. Horregatik, beharrezkoa ikusten dute borts udaletan Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeke baldintzak ezartzea, horiek izanik mankomunitate bakarra eratzeke ezinbertzez bete beharreko baldintzak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, ERABAKI DU:

1.- Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeke ezinbertzez bete beharreko baldintza hauek ezartzea:

1. Mankomunitateak idazkari-kontuhartzaile propioa izanen du.
2. Mankomunitateke egoitza nagusia Alkaiagan kokatuko da eta zerbitzuen egoitzak orain kokaturik dauden udaletan mantenduko dira. Etorkizunean, gehiengo kualifikatu bidez (estatutuetan zehazten denaren arabera), zerbitzuen egoitza mugitzea onartuko litzateke. Toki aldaketa hau bertze udaletako bertze egoitzaren batera izan daiteke, hau da, egoitzak ez dira zertan Alkaiagara aldatu beharko.

2.- Nafarroako Gobernuke Toki Administrazioke eta Despopulazioke Zuzendaritza Nagusiak Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarrak idazkari-kontuhartzaile propioa ezin duela izan ebazten badu, alkateari ahalmen nahikoa ematea aipaturiko zuzendaritzara Arantzako Udalaren izenean jotzeko, Bortzirietako bertze alkateekin batera, eta idazkari-kontuhartzaile propioa izateke izapideak egin ahal izateke.

3.- Akordio hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari, Hiri Hondakinen Mankomunitateari eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari jakinaraztea, Arantzako Udalaren onespina emanez Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeke beharrezko izapideekin hasi daitezten.

4.- Akordio hau Nafarroako Gobernuke Toki Administrazioke eta Despopulazioke Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

6. ALKATEAREN EBAZPENAK.

43/2023tik 55/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 20:45 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

Dabid Iturria Almandoz



**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte

